

# PROIEKTUAREN AZALPENA

Gure enpresak zerbitzu bat eskainiko du ikastetxe publikoetako irakasle zein ikasleei. Zerbitzu honekin saiatuko gara ikasle eta irakasleen arteko desadostasunak konpontzen, irakaskuntzan sortzen diren arazoak konpontzeko, klase antolaketarekin eta ordutegiekin dauden arazoak, hain zuzen ere.

Horretarako, APP bat sortuko dugu. Aplikazio hau erabili ahal izateko Google Play edo App Store-en deskargatzeko aukera egongo da. Gainera, aplikazioa deskargatzea eta izatea doan izango da. Honetan bi eremu bereiziko dira: alde batetik, ikasleen eremua; eta bestetik, irakasleena. Beraz, aplikazioa deskargatu ondoren, izena emateko orduan, irakasle edo ikasle bezala izena eman beharko da.

Ikaslearen eremuari erreparatzen badiogu, arestian aipatu dugun bezala, izena emateko orduan ikaslea dela jarri beharko du bere posta elektronikoa eta izen-abizenekin batera. Lehen fase hori gainditzeko zuzenean ikaslearen eremuan sartuko da. Honetan ikasleek zalantzak argitzeko, beraien kexak eta ikuspuntuak gurekin partekatzeko aukera izango dute. Guk, haien kexak jasoko ditugu eta gero irtenbide bat aurkitzen lagunduko diegu. Eremu honetan ere gurekin harremanetan egoteko aukera izango dute, txat pribatu baten bidez, hau da, beraien kexak orri "publiko" batean azalduko dira, zeina bakarrik ikasleek eta guk ikusi ahalko duguna eta bakarrik ikasleek izango dute idazteko aukera. Horregatik txat pribatu bat ireki ahal izango dute gurekin harremanetan egoteko ez nahi badute haien ideiak edo kexak besteekin partekatu edo gurekin pribatuan hitz egin nahi badute.

Irakasleen eremuari erreparatzen baldin badiogu, arestian esan dugun bezala, izena emateko orduan irakaslea dela jarri beharko du bere posta elektronikoa eta izen-abizenekin batera. Fase hau gainditzeko, zuzenean irakaslearen eremuan sartuko da. Honetan, irakasleek duten zalantzak entzuteko eta haien irakaskuntza nola hobetu daiteke, dauzkaten galderen erantzuna lortzeko aukera izango dute. Guk, izena ematen duten irakasleei laguntza eskaintzen diegu, ikasleek esandakoaren arabera eta guk ikasle bezala dauzkagun proposamenak egingo dizkiegu, dauzkaten arazoak konpondu dezaten. Irakasleekin ere harremanetan egoteko txat pribatu bat egongo da, izan ere, dauzkaten zalantzak edo dena delakoak, orri publiko batean ezarriko dira. Orri publiko honetan bakarrik erregistratutako irakasleak eta gu sar gaitzke. Gainera, hemen bakarrik irakasleek idatzi ahal izango dute, eta guk bakarrik irakurri ditzakegu haien mezuak. Txat pribatuan, aldiz, irakasle bakoitzarekin harremanetan egongo gara eta biok dugu idazteko aukera.

Baina aplikazio honetaz aparte, ikastetxe publikoetan hitzaldiak ere emango ditugu. Hauetan, helburua da, aplikazioarekin lortutako informazioa ikasle zein irakasleei azaldu, eta gorabeherarik balego, momentuan haien artekoa konpontzea. Horrela, errazagoa izango da irakaslearentzat klaseak antolatzea eta baita ikaslearentzat gelan emandako teoria ikastea ere; beraz, emaitza hobek aterako lirateke. Izan ere, ikasle eta irakaslearen arteko liskarrak konponduta egongo lirateke.

